

II. eranskina

GRADU AMAIERAKO LANETARAKO GAIAK PROPOSATZEKO ARAUAK

Dokumentu honen helburua da gradu amaierako lanak (aurrerantzean GRAL) egiteko gaien ezaugarriak zehaztea.

1 IKUSPEGIA

GRALa gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, oinarrizko arkitektura proiektu aurreratu bat egin behar du, eta bertan graduko ikasketa aldian era horretako proiektuetarako landu diren gaiak bildu eta garatuko dira. Horretarako, kontuan hartuko dira honako ezaugarri hauek:

2 KOKAPENA

Kokapenak hirigintzako azterketa bat egiteko besteko konplexutasuna izango du.

3 PROGRAMA

Programa, ahal dela, ikasleak azterketa bat egin ahal izateko besteko konplexutasuna duen arkitektura proiektu bati dagokiona izango da. Tamaina ikasleak aztertu ahal izateko bestekoa izango da.

4 AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Epaimahaiak iritzi kritiko oinarritua eta arrazoitua eman ahal dezan, aurreproiektua osatuko duten dokumentuetan, hala grafikoetan nola idatzietan, labur eta argi azaldu beharko da zein den GRALarekin proposatzen den jarduketa. Bereziki alderdi hauek hartu behar dira aintzat:

- Lehenik eta behin behar-beharrezkoa da egungo egoera modu egokian azaltzea dokumentuen bidez (dokumentu grafikoak, idatziak eta argazkiak), hau da, proiektuak ekarriko dituen aldaketan aurretik zer dagoen azaltzea.
- Proiektua aurretik baden eraikin bati badagokio, erakin horri buruzko dokumentu grafikoak aurkeztuko dira.
- Era berean, egungo egoerari buruzko azalpenean honako hauek adieraziko dira: arautegiak, egonez gero; planteamenduaren nondik norakoak; eta abar. Garrantzitsua da, orobat, proposamenean eragina duten kultura faktoreak aipatzea.
- Esandako guztiarekin batera memoria bat aurkeztuko da, gehienez ere bi DIN A4koa, ideiak azaldu eta justifikatzeko, baita lekuaren eta premien programaren mugak ere.

GRALerako izena ematerakoan lana egiteko aukeratu den hizkuntzan (euskara, gaztelania edo ingelesa) aurkeztu beharko da dokumentazioa. Gaien aniztasuna dela eta, ez da proposatzen inolako eskalarik irudietarako, baina azalpenak argitzeko eta hobeto ulertzeko balio izan behar dute.

5 GAIA INSKRIBATZEA

Gaia GAUR aplikazioan inskribatuko dute irakasleek, aplikazioan horretarako dagoen atalean.

Horrez gain, "Gai Proposamena" izeneko fitxa (dokumentu honen eranskinekoa) aurkeztuko dute zuzendaritzako idazkaritzan.

6 GAIA ONTZAT EMATEA

Epaimahaiek aurkeztutakoa ebaluatuko dute, eta, egokitzat joz gero, gaia ontzat emango dute.

7 EGUTEGIA

Egutegia ikastegiko zuzendaritzak ezarriko du GRALeko koordinatzailearen proposamenari jarraituz.